



Amaia Agirre: «Oraindik ez dut uste hanka bat finalean dudanik»

TOLOSALDEA ▶ Agirre bigarren izan da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurreko lehen saioan; Jexux Mari Irazuk ez zuen saio ona egin ▶ 5



Jexux Mari Irazu larrauldarra eta Amaia Agirre billabonatarra, herenegun, Hendaian jokaturako finalaurreko lehen saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Harpidedun kopurua mantendu du HITZAK

Egun, harpidedun direnen %65 dira ordaintzaileak ▶ 2

IBARRA ▶



I. TERRADILLOS

Babarruna aitzaki, festa giroa nagusi

160 lagun elkartu zen Hauspoaren babarrun jatean ▶ 6

TOLOSA ▶

Peñak ezin izan du erronka burutu

Ez du Sellan marka hobetzerik izan ▶ 3

LEITZA ▶

Euskal Curriculum liburua Leitzaldera iritsiko da gaur

Ekarpenak egingen diote Amazabaleko ikasleek ongietorri ekitaldian ▶ 7

VILLABONA ▶

Izkiñako bidegurutzea itxita gaurtik aurrera

Urak bideratzeko lanak direla-eta ▶ 4

LEITZA ▶

Nafarroako Kantu Txapelketan lehian

Igandean, bigarren kanporaketa ▶ 7

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Zer dakar distantziak? Ahaztea

Hara zer dioen Gipuzkoako Diputazioko Gizarte Zerbitzuen Mapak lehendabiziko orrietan: gure gizarte zerbitzuen erroka nagusia da, hain zuzen, egoitza zentroek eta gainerako gizarte zerbitzuek egon behar dutela pertsona bizi izan eta bere familia, adiskide eta bizilagunak dauden ingurunean.

Mundu guztiarentzat garrantzi handia du nork bere etxe-koen eta lagunenez hurbiltasunak, pertsonaren bizitzako azken

atalaren kalitatea ahalik eta handiena izateko. Horixe esaten da gizarte zerbitzuen idatzietan, biltzarretan... Eta kolore nahiz maila desberdinetako politikari guztiek erabiltzen dute argudio gisara: Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak, azken Batzar Nagusietan; Esther Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako diputatuak, aurkeztu zutenean programa pilotu baten zabalkuntza, minusbaliotasun fisiko larriko pertsonen beren etxeetan modu independentean bizitzeko; eta, azken bolada honetan, Berastegiko alkateak, Gaztainondo-Ategi zentro balioanizduna inau-

ratzean: «Zentro honi esker, hemendik aurrera ez dute utzi behar izango ohituta zeuden giroa eta etxe-koengandik gertu egoteko aukera izango dute».

Baina, dirudenez, nor bere etxe-koengandik eta lagunengandik gertu egoteak garrantzia du politikarientzat, baldin eta kostuaren merkatzea bada; eta horrela ez denean, pertsonaren mundu, familia, adiskide eta historiarekiko gertutasunak ez du halako garrantziarik. Aldiz, beste gauza batek hartzen du garrantzia: behar baino plaza gehiago dauzkaten eskualdeetako egoitza-ko plazak okupatzea (Do-

nostialdean, Ernio Behean, Beasainaldean). Eta horietan dago, *kasualitatez*, gure jendearen gehiengoak. Izan ere, ezin izan dute jasan itxaroteko zerrendek sortarazi dieten egoera, askotan urtebetetik gorako itxaronaldiarekin, eta erabaki dute non edo non sartzea, hementxe plazaren bat hutsik geratu eta txandaren arabera egokitzen zaien bitartean.

Plataformako kideontzat, eta sen oneko edozein pertsonarentzat, argi dago garrantzia handikoa dela nor bere txoko eta ingurukoengandik hurbil egotea. Hori ondo asko dakite seme-alabak urrun dituzten gurasoek, nahiz eta osasun-eko

ondo egon, edo lurreamendi egoitzatik San Kosmera jotzen dutenek, edo, ahal dutenean, Tolosaldeetik kanpo dauden egoitzetatik hemengo egoitzaren batera aldatzen direnek. Kantak dioen modura, urruntasunak ahaztura dakar edo ahazten laguntzen du; norberaren ingurukoenez hurbiltasunak, berriz, ekar lezake areagotzea pertsona horien azken urteetako bizitzaren kalitatea.

Arrazoi horrengatik defenditu genuen Gerontologikoa, eta arrazoi beragatik jarraitzen dugu galdetzen: Eta orain zer?

MANU LEUNDA ▶ TOLOSALDEKO GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ▶

Bukatutzat eman du HITZAK aurtengo kobraketa kanpaina

lazko harpidedunen kopurua bere horretan mantendu da; gaur egun harpidedun diren %65a dira ordaintzaileak; abantaila ugariz gozatzeko aukera dute horiek

IRATXE ETXEBESTE

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bukatutzat eman du honezko aurtengo kobraketa kanpaina, eta lazko harpidedun ordaintzaileen kopurua bere horretan mantendu dela ondorioztatu du. Izan ere, eskualdeko euskarazko egunkari-ko harpidedun diren %65ak ordaindu du aurtengo kuota —iaz ere bera izan zen kopuru hori—. Aurreko urtean harpidedun izanagatik urteko kuota ordaintzen ez zuten batzuk harpidedun ordaintzaile izatera pasatu dira; HITZA egunkaria hazten eta hedatzen ari den seinale.

45 eurokoa izan da aurtun eskualdeko euskarazko egunkaria egunero etxean jasotzeagatik harpidedunei eskatu zaien diru kopurua. Urrian ze-



lazko harpidedun ordaintzaileen kopurua mantendu egin da. HITZA

har HITZako harpidedunek telefono deiak eta gutunak jaso dituzte, kanpainaren inguruko xehetasunen berri izateko. Kontu korronte bidez egin dute gehienek ordaintza; beste batzuk HITZAK Tolosan duen egoitzara etorrira egin dute, eta gutxi batzuk izan dira euskarazko egunkariaren kontu korrontean dirua sartuta egin dutenak.

HITZako harpidedun ordaintzaile izateagatik abantaila asko izaten ditu herritarrak urte osoan. Besteak beste, eskualdeko euskarazko egunkariak antolatutako zozketetan parte hartzeko aukera dute —zinema eta pilota partidueta-rako sarrerak, dendari laguntzaileen opariak... zozketatzen ditu—, promozioetan parte hartzeko, zenbait kanpainaren baitan eskualdeko dendentan deskontuak izatekoak...

ABANTAILAK

HITZako harpidedun ordaintzaile izateagatik abantaila asko izaten dira: beherapenak, zozketak, promozioak...

Harpidedun ordaintzaileen laguntzarekin egiten du aurrea TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Autofinantzaketak ziurtatzeko bidean, ezinbesteko du harpidedun bakoitzari eskatzen dion urteko kuota jasotzea. Era horretara sendotzen da, baita ere, proiektua.

Urteko kobraketa kanpaina bukatu da, baina oraindik ere kuota ordaintzeko asmoa duenak badu horretarako aukera. Kontu korrontea eman nahi duenak Bezero Arreta telefonora (943 30 43 46) deituta edo harpidetza@hitza.info posta elektronikora idatzita egin dezake. Kontu korrontearen zenbakia eman nahi ez dutenek ere badituzte beste bide batzuk: erredakzioko bulegoan (Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa) eskuz ordainduta edo Eskudiko Kutxan diru sarrera egin, gutunez emandako kontu korrontean eta harpidedunaren kode zenbakia zehaztuz.

hilberriak ▶

Gorka Manzidor Zigarán
"Mantzi"

Zure hitzetan bazegon nahiko txiste eta elegantzi, mus txapelketan ere hamaika txapel zenituen jantzi. Gure arteak joan zera baina inoiz etzazu ahanzi koadrilako denen barruan egongo zerala Mantzi.

Hire lagunak.

Elizkizuna ▶ gaur, hilak 8, arratsaldeko 19:00etan, Zestoako parrokian. ZESTOA, 2005eko azaroaren 8a

Alberto Torrubia
(Gure ikasle baten aita)

Zure gure ondoan ez izateak mintzen gaitu; zu ezagutu izana da gure poza, aurrera egiten lagunduko digu, laguna

Langaitz ikastola

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA Nazional Maila A. Ibarra-Carnic. Saenz 4-5 Saillkapena ▶ 1. Xota 16 puntu 2. Ultzama 15 puntu 3. Logroño 15 puntu 4. Soloarte 14 puntu 5. Arnedo 12 puntu 6. EHU/UPV 12 puntu 7. Ibarra 12 puntu 8. Atenea 9 puntu 9. Sestao 9 puntu 10. Gazte Berriak 8 puntu 11. Carnic. Saenz 6 puntu 12. Muriedas Urrutia 5 puntu 13. D. Cerverano 4 puntu 14. Sasikoa 3 puntu 15. Jarrileros 2 puntu Lehenengo Maila. T. Lakuntza-Portubxo 2-4 Emakumezkoen Senior Maila. Amara-Tinta 0-22 Nazional Maila B. Laskorain-Santurtzi 5-4	FUTBOLA Hirugarren Maila. Santurtzi-Tolosa 2-1 Saillkapena ▶ 1. Sestao 26 puntu 2. Gernika 21 puntu 3. Baskonia 20 puntu 4. Arenas 18 puntu 5. Tolosa 16 puntu 6. Amorebieta 16 puntu 7. Audio Sall. 16 puntu 8. San Pedro 15 puntu 9. Eibar 14 puntu 10. Lagun Onak 14 puntu 11. EHU/UPV 14 puntu 12. Santurtzi 14 puntu 13. Beasain 14 puntu 14. Elgoibar 13 puntu 15. Zamudio 13 puntu 16. A. Vitoria 11 puntu 17. Aurrera O. 10 puntu 18. Indauba 9 puntu 19. Gebo 8 puntu 20. Agurain 7 puntu Lurraldeko 1. Maila.	Danena-Usurbil 1-2 Lurraldeko 2. Maila. Intxurre-Lazkao 2-2 Amaroz-Tolosa B 1-1 Saillkapena ▶ 1. La Salle 19 puntu 2. Munibe 17 puntu 3. Tolosa B 14 puntu 4. Intxurre 13 puntu 5. Ordizia B 11 puntu 6. Amaroaz 8 puntu 7. Lasarte Oria 7 puntu 8. Axular 5 puntu 9. Lazkao 5 puntu Jubenilen 1. Maila. Tolosa-Retuerto 3-1 Saillkapena ▶ 1. Athletic 25 puntu 2. Eibar 20 puntu 3. Antiugoko 19 puntu 4. Real Sociedad B 19 puntu 5. Cultural 14 puntu 6. Danok Bat 12 puntu 7. Indartsu 12 puntu 8. Retuerto 12 puntu	9. Tolosa 11 puntu 10. Santutxu 11 puntu 11. Hernani 11 puntu 12. San Ignacio 10 puntu 13. Arenas 7 puntu 14. Barakaldo 7 puntu 15. Romo 7 puntu 16. Gurutzeta 6 puntu Jubenilen 1. Maila. Intxurre-Antzuola 2-1 Nesken Liga. Euskalduna-Tolosa 0-10 Saillkapena ▶ 1. Añorga B K.K.E. 27 puntu 2. Tolosa 22 puntu 3. Vasconia F. D. 20 puntu 4. Amara Berri 18 puntu 5. Luberri 11 puntu 6. Usurbil 9 puntu 7. Goseko K.E. 6 puntu 8. Urnieta K.E. 4 puntu 9. Euskalduna F. D. 0 puntu FUTBOL 7 1. Maila A.	Continental Industrias-Zibido Dance Club 2-3 1. Maila A. Akelenea sagardotegia-Caravanas Tolosa 1-2 PILOTA GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA Kadeteak. Aurrera-Saiaz/Lagunak (Marrin de la Sotilla-Xabier Mugika) 22-6 Intza/Aurrera-Saiaz (Mikel Lasa-Ander Dorronsoro) 22-13 Jubenilak. Anaitasuna/Aurrera-Saiaz (Aritz Mugika) 22-13 Zazpi Iturri 3/Aurrera-Saiaz (Xabier Tellebea-Koldo Galaraga) 22-6 Ilunpe/Aurrera-Saiaz (Aritz Irazusta-Eñaki Errazkin) 22-6 Seniorrak. Aurrera-Saiaz/Andazpe (Garikoitz Galaraga) 5-22 Bergara/Aurrera-Saiaz 18-22	(Mikel Belloso-Jabi Oteiza) Aurrera-Saiaz 1/Loiolatarra (Unai Aspe-Ruben Zapirain) 22-1 Aurrera-Saiaz 2/Intza (Mikel Olaebea-Iker Huarte) 22-5 SASKIBALOA Maila Interautonomikoa. Tolosa Aralar- J.F. Ceramica 62-69 Saillkapena ▶ 1. J. F. Ceramica 2. Gernika 3. Santurtzi 4. Ibaizabal 5. EHU Araba 6. Tolosa Aralar 7. Ventanas Leon 8. Asti Leku 9. L. Zarautz 10. Leioa Artea 11. Salleko 12. La Salle 13. Patronato 14. Jarrileros 15. S. Laudio
--	--	--	--	---	--

TOLOSA ▶ IGERIKETA

Seigarrenean saiatu beharko du Peñak bere marka hausten

Ez zuen 3 ordu eta 52 minutuko marka hobetzerik izan Sella ibaia zeharkatzen

NOELIA LATABURU

Ez zen posible izan. Guinness errekorra lortu berri duen Carlos Peña igerilari eta abentura-zaleak ez dio bere azken erronkari aurre egiterik izan. Iragan larunbatean ekin zion saiakerari: bosgarren aldiz, Asturiasen (Espainia) dagoen Sella ibaia zeharkatzea, hain zuzen. Arriondas izeneko zubia eta kostaldean dagoen Ribadesella herria banatzen dituzten 19 kilometroko bizkarrez igerian zeharkatu zituen Peñak, lau orduz. Baina ibaiaren marea igo-

erak berak iaz finkatu zuen errekorra haustea eragotzi zion. Azken aldiz ibilbide berbera gauzatzeko 3 ordu eta 52 minutuko marka ezarri zuen tolosarrak eta, beraz, 8 minutu soberan izan zituen amaierarako, larunbatean. Irteeran atzerapena izan zuen igerilariak eta marearen aurka igeri egitera behartuta egon zen. Halaber, urak oso tenperatura baxua zuela eta ur kopurua murrizta zela ipatu ditu Peñak eronka ez lortzeko arrazoi nagusi bezala. Ibilbidearen une batzuetan harkaitzen

aurka jo zuela aitortu zuen Peñak. Ibilbide gutzian zehar Jesus Ramirez izan zuen alboan, kanoa batean, gida moduan, bai eta arazoei aurre egiteko ere. Aurreko urtean baino («indartsuago» sentitu zela adierazi zuen Peñak eta bere marka haustea lortu ez izanagatik, poz-iki azaldu zen proba amaieran. Ribadesellako Kultur zinegotzi Veronica Blancok plaka bat eman zion, bere saiakeraren oroigarri moduan. Dena den, eta gehienetan probak errepikatzen ez dituen arren, seigarrena ere helduko



Carlos Peña. NEREA LIZARTZA

dela baieztatu du Peñak, datoren urtean berriz ere saiaturiko baita 3 ordu eta 52 minutu azpitik ibilbidea igerian egiten.

ARETO FUTBOLA ▶

Urrezko garaipena Laskorainek lortutakoa

5 eta 4 irabazi zuen larunbatean Usabalen Santurtzi taldearen aurka

N. LATABURU

Gogoz sufritu zuen Laskorain taldeak Santurtziren aurka jokaturiko partidaren larunbatean, Usabalen. 5 eta 4koarekin amaitu zen norgehiagoka, lau minututan sarturiko hiru golei esker. Garaipena lortu bazuen ere, ez zuten partida ona burutu horitxoek, aurkariak gehiago sartu baitziren partidaren.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko storb. 47- behe
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enria@inmoenria.com
www.inmoenria.com

Alegia. 3 logela, sukaldea eta bi bainugela. Egoera oso ona. Berria bezala.
Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak dituena.
Amezket. Eraikuntza oso berria, 2

logela eta bi kotxeentzako garaje ibxia. 210.355 euro.
Larraul. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. Zoragarria!
Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.
Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 138.235 eurotik aurrera.
Tolosa. Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratza eta txabolarekin. 204.345 euro.
Tolosa. Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzentzako moduan. 237.400 euro.
Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela.

Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.
Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua.
Tolosa. Amaroaz auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin. Trastelekuarekin. 228.385 euro.
Tolosa. Sputnik. Duplex altua. Berritua.
Tolosa. Larramendi. 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.
Tolosa. Zezen-plazan. 87 m2-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.
Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!
Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behean: garajea, komuna eta txokoarekin.
Tolosa. Geltokialdea, Alberdi berrian, garaje ibxia alokairuan.
Txarama inguruan. 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.
Tolosa. Trinkete. 3 logela eta 2 bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!
Tolosa. Erdialdean. Guztiz berritua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 306.517 euro.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldea, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126 m2-ko etxebizitza berritua, 4 logela, 2

bainugela. Kanpoaldea, altua. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabean! 4 logelako etxebizitza ederra, garajearekin salgai.
Tolosa. Erdialdean, 253 m2 dituen lokala (bi solairutan banatua dagoena) salgai.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.
Villabona. Eraikuntza berrian 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea aukeran.
Villabona. Kale Berria. 30 m2-ko garaje ibxia salmentan.

AMASA ▶ JAIK

Berrikuntza ugarirekin datoz aurten San Martin festak

Gaur mondeju afaria egingo badute ere, bihar hasiko dira jaiak suziri jaurtiketarekin

IMANOL GARCIA

Berrikuntza ugari izango dituzte aurten Amasako San Martin jaietan. Beste ekitaldi asko urterokoak izango dira, gaur gaueko mondeju afaria Uxotoki elkartearen kasu. Bihar hasiko dira, baina, jaiak ofizialki, lehen suziri jaurtiketarekin. Kultur Etxe berria dagoela eta, bertatik jaurtikiko dute. Horrekin batera argazki erakusketa egingo dute, jaien inguruko irudiekin. Orain urte batzuetako argazkiak zein azken urteetakoak jarriko dituzte.

Beste berrikuntza bat Artzain Zakur Lehiaketa izango da. Fraisoro Nekazaritza Eskolagundua du antolaketan, eta eskolako ikastaroan parte hartutakoak lehiatuko dira. Apustuek ere izango dute beren tarte. Iaz astoaren aurka aritu ziren amasarrak, eta aurten gazteluarrak izango dituzte aurkari. Hilaren 20an Mikel Artetxe amasarra Miguel Angel Goioagari irabazten saiatuko da ingude-proban.

Bertsolari ezagunak ariko dira larunbateko saioan: Joxe Agirre, Peñagarikano, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze. Nikolas Zeberio sortuko du giro berezia gai-jartzaile lanean. Asto lasterketa berreskuratu dute igande goizerako. Hori bai, parte-hartzaileak mozturroturik lehiatu beharko dute. Beste aparteko eskaintza erremonte partida profesionala izango da. Bertan parte hartuko du Ibarzabal amasarrak, aurten profesionaletan debuta egin duenak.



Argazki erakusketan ikusi ahal izango den irudi zaharretako bat. HITZA

EGITARAUA ▶

GAUR

20:30. Mondeju afaria Uxotoki elkartearen.

BIHAR

20:00. Suziri jaurtiketa Kultur Etxetik. Bertako areto nagusian argazki erakusketa irekiko dute. Jatekoa eta edatekoa izango da.

ETZI, AZAROAK 10

Gazteen Eguna.

06:00. Gazteen gosaria Ongi Etorrin trikitilarietako alaiturik.

14:00. Gazteen bazkaria Uxotoki elkartearen.

16:30. Soka-dantza eta aurrekua plazan. Ondoren, trikitilarien erromeria.

21:00. Afaria Arantzabain.

OSTIRALA, AZAROAK 11

San Martin Eguna.

11:00. Meza nagusia.

11:30. Artzain Zakur Lehiaketa.

17:15. Pirritx eta Porrotx-en emanaldia. Gero, txokolatada.

20:00. Amasako XIV. Bakailoa Lehiaketa. Ondoren, bakailoa eta sagardoa doan izango da nahi duenarentzat.

00:00. Dantzaldia Izotz taldearekin.

LARUNBATA, AZAROAK 12

10:30. Ume krosa 15 urtetik beherakoentzat.

12:00. Apustua: herriko gazteak gazteluaren aurka.

14:00. Txekor jatearekin herri bazkaria. Ondoren Jexux-en Jazbana.

19:00. Txiste kontalariak Kultur Etxean.

20:30. Bertsolari jaialdia. Gero dantzaldia Abiba DJrekin.

IGANDEA, AZAROAK 13

12:00. Asto lasterketa mozturroturik.

17:00. Erremonte partida profesionala. Ondoren, herri kirolak herritarren artean.

00:00. XVI. Intxorren aldatzea.

IGANDEA, AZAROAK 20

11:00. Amasako XIII. Mendiatioia. Ondoren,

ingudean neurtuko dituzte indarrak Zeanuriko Miguel Angel Goioagak eta Amasako Mikel Arretzek.

VILLABONA ▶

Izkiñako bidegurutzeari itxita gaurtik aurrera

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundia ur-beltzak eta euri-urak bideratzeko egiten ari den lanean Izkiñako bidegurutzeari itxita gaurtik aurrera. Beraz, Zizurkil eta Asteasurako sarbidea Adunako zubitik egingo da. Hala, Kale Berria Izkiñaren parean itxita egongo denez, Donostiatik Villabonara joaten diren ibilgailuak —Txerminera eta Kale Berriaren aurreneko zatira doazenak izan ezik— ahal dela gasolindegiko sarreeratik sartuko dira. Hala egin ezean, Altzinetik desbideratu behar dira Izkiñan, eta era honetan zirkulazioa asko motelduko da.

Bestalde, kamioiek ezin izango dute ibili Berria 1eko aparkalekuaren eta elizaren artean. Beraz, hirigunea zeharkatzeko N-1 errepidea erabiliko dute alternatibagisa. Era berean, gainerako beste ibilgailu guztiak bezalaxe, Zizurkilera eta Asteasura doazen kamioiak Adunako zubitik joango dira.

Autobusei dagokionez, ezin izango dute herrigunetik igaro; beraz, honetatik kanpo egingo dituzte geldialdiak. Hala, Tolosara doazen TSST konpainiako autobusak burdinazko zubiko biribilgunean eta Arroa 27an geratuko dira. Donostiara doazenak kiroldegian geratuko dira soilik. La Estellesa, La Roncalesa eta Pesa konpainietako autobusak Arroako biribilgunean geratuko dira Tolosa aldera doazenean, eta kiroldegian Donostia aldera doazenean.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Berrituriko etxebizitza salgai. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea. Etxesagasti 943 69 68 56.

Larraul. Etxe abikizia salgai. Azkena geratzen da. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta. 3 logelako etxebizitza eraberritzeko. Altua eta igogailuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lizartza. Baseri eraberritua salgai lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Eraiki berria. Egonela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Ezinhobe. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 96 m²-ko etxebizitza. Egonela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosalde. Baserria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egonela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Egoera onean. Trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Tolosaldean. Etxesagasti. 943 69 68 56

ANOETA ▶ GIZARTEA

Hitzaldia bakarbizitzari eta elkarbizitzari buruz

ERREDAKZIOA

Alkartasuna Biltokian hitzaldia izango da gaur, 18:30ean, Aulas Kutxak antolatuta. Joseba Muñozek *Bakarbizitza eta elkarbizitza* aukerak izango ditu mintzagai.

Hizlariak ondorengo gaiak jorratuko ditu: bakarbizitza,

bakardadearen konplikazioei aurrea hartzea, etxean laguntzea, komunitate-laguntza bizileku batean mantentzeko, etxea hartzeko aukerak, lor daitezkeen baliabideak eta elkarbizitzako ereduaren eskaintza. Hitzaldia amaitu ondoren, meriendatxo emango dute biltokian bertan.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ▶

Agirre: «Pixkanaka-pixkanaka joan nahi dut finalera»

Bertsolari Txapelketako finalurrekoetako lehen saioan Amaia Agirrek 734,5 puntu lortu eta bigarren izan da; Jexux Mari Irazuk ez zuen saio ona egin



Amaia Agirrerren helburua lehen lau sailkatuen artean egotea zen; zinez lortu zuen billabonarrak bere helburua. BERTSOZALE ELKARTEA

MARTA SAN SEBASTIAN

Unai Iturriagaren izena izan zen igandean Hendaian disdinarik handiena izan zuena. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoetako lehen saioan aritu ziren Amaia Agirre, Fredi Paia, Jexux Mari Irazu, Jokin Uranga, Jon Martin eta Unai Iturriaga. Seikoteak saio bikaina osatu zuen, eta ikus-entzule asko bildu zen Hendaiaiko Belterenia pilotalekuan.

Unai Iturriagak ederki egin zuen bertsoetan eta gainontzeko bertsolarien gainetik ibili zen saio osoan. 774 puntu bildu zituen azkenean. Hendaia gerturatu ziren 1.800 bertsozaleek gogotik eskertu zuten haren emanaldia. Txalotu ere egin zuten. Aurkako zoria izan zuen saioko beste beteranoak, Jexux Mari Irazuk. Larrauldarrek ez zuen ohiko maila eman. Bi poto ere egin zituen, eta horrek hondamendira eraman zuen. 617 punturekin seigarren postua lortu zuen, eta azkena geratu zen.

Amaia Agirrek egin zuen saio ona. 739,5 punturekin bigarren postua eskuratzea lortu zuen billabonatarrek, eta finalerako txartela lortzeko pauso txiki bat gehiago egin zuen.

«Pixkanaka-pixkanaka joan nahi dut, baina oraindik ez dut uste hanka bat finalean dudarik», adierazi zion HITZARI Amaia Agirre. Pozik dago egindako saioarekin eta helburua lortu duela dio: «Nire helburua lehenengo lauen artean egotea zen, eta lortu dut». Hala ere, finalak ez omen du urduri jartzten; «BECen kantatzeak izugarriko ilusioa egiten dit, hori bai», adierazi du. Amaia Agirrerri kideen inguruan galdeztzen zaionean, onartzen du Unai Iturriagak «egurra eman» ziela gainontzekoei. Ale bikainak eskaini zituen eta mereztakoa izan zen garaipena. Atzokoan, «denok ezagutzen dugun Jexux Mari Irazu ikusteko aukera ez genuen izan».

Orokorrean, aldiz, saio polita eskaini zuen seikoteak. Amaia Agirrerren atzetik Jokin Uranga azpeitiarra sailkatu zen, 731,5 punturekin. Bertsolari gazteak Unai Iturriagarekin bat eginda 8ko handian pieza bitxiak egin zituen, erretzea debekatu dieten bi langileren papera jokatuz. Moda-modako gaia. Fredi Paiak, aldiz, poltsikorako 719 puntu lortu zituen. Jon Martin hernaniarrak bezala. Jexux Mari Irazu larrauldarrek, ordea, 717 puntu lortu zituen.

SAILKAPENA ▶

Unai Iturriaga. 774 puntu.
Amaia Agirre. 739,5.
Jokin Uranga. 731,5.
Fredi Paia. 719.
Jon Martin. 719.
Jexux Mari Irazu. 717.

Finalurrekoak martxan

Finalurrekoetako lehen itzuliko lehendabiziko saioa izan zen Hendaiakoa. Bi itzuli beharrezkoak izango dira finalera iritsiko diren izenak ezagutzeko, eta itzuli bakoitzak hiru saio izango ditu. Lehena besterik ez dugu entzun oraingoz. Azken-

laurdenetan sailkatutako bertsolari bakoitzak bi saiotan ariko da bertsoetan, eta puntuaketa batu egingo da. Finalera denera puntu gehien lortzen dituen iritsiko da. Beraz, oraindik puntuaketa ez da erabakigarria.

Hurrengo saioa Markinan izango da, larunbatean. Aitor Sarriegi, Amets Arzallus, Arkaitz Estiballes, Igor Elortza, Jon Maia eta Xabier Paia ariko dira bertsoetan. Igandean, aldiz, beste saio bat izango da. Iruran bizi den Aitor Mendiluze, Arkaitz Goikoetxea, Ekaitz Goikoetxea, Etxahun Lekue, Iñigo Manzisidor eta Sustrai Colina izango dira lehian.

ALTZO ▶

Autoenplegua mintzagai, etzi, liburutegian

M. SAN SEBASTIAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduta, autoenpleguari buruzko tailerra egingo dute etzi Altzon. Liburutegian —udaletzeko ganbaran— izango da hitzordua, 18:30ean.

Gipuzkoa osoan autoenpleguari buruz egiten ari diren hitzaldi eta tailerren kanpainaren baitan sartzen da etzikoa. Lana bilatzeko zenbait teknika erabilgarri erakustea du xede. Ondoren, gainera, ekimen honetan parte hartzen dutenei lan munduan sartzeko laguntza eskainiko diete. Ana Telleria izango da hizlari.

ORENDAIN ▶

‘Osteoporosia, arriskuak eta zainketak’ hitzaldia, bihar

M. SAN SEBASTIAN

Bihar 17:00etan *Osteoporosia, arriskuak eta zainketak* izeneko hitzaldia izango da Orendaingo Erretore Etxean. Kutxako Urrezko Zerbitzuak Orendaingo Hurkoa elkartearekin bat eginda antolatatu duen hitzaldia da.

Mari Paz Urkia ariko da osteoporosiaren inguruan. Hain zuzen ere, osteoporosia zer den azalduko du. Ondoren, haren motak, ezaugarriak eta sintomak argitu ditu. Gaisotasunaren diagnostikoa eta tratamendua ere jorratuko ditu eta, azkenik, osteoporosia eta menopausiaren arteko erlazioa.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶

'Herri inauteriak'
erakusketa
atzeratu egin dute

Aste honetan Kultur Etxean ikusgai izateko zen *Herri inauteriak* Iñaki Vergararen argazki erakusketa atzeratu egin dutela azaldu dute Ibarako Kultur Etxetik.

BELAUNTZA ▶

Kultur Etxeak
yoga ikastaroa
antolatu du

Belauntzako Kultur Etxeak yoga ikastaroa antolatu du. Hiru hilabete iraungo ditu ikastaroak, eta asteartero izango da, 20:00etatik 21:30-era. Arnasketa, estiramentuak eta erlajazioa landuko dituzte, besteak beste. Tolosaldeko herritarrei zabalik dago eskaintza, eta izena emateko 10 euro ordaindu beharko dira. Arratsaldetan, 943 67 00 20 telefonora dei ginez egin ahal izango da.

BERROBI ▶

Frontenis
Txapelketarako
izen-ematea

Azaroaren 19an hasiko da Berrobin XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Izena emateko Berrobiko udaletxea (09:00etatik 14:00-etara), Iturriza janaridenda eta Iriarte jatetxea, eta Tolosa eta Donostiako Aralar Kirolak dendara jo beharko da. Bikoteko 10 euro eta banaka 5 ordaindu beharko dira. Izena emateko azken eguna etzi izango da.

TOLOSA ▶

Inauterien
inguruko bilera
izango da etzi

Etzi, ostegunean, jai batzordearen bilera egingo dute Tolosako Kultur Etxean, 19:00etan. Inauterien inguruan aritzeko bilduko dira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Iturgintza. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.
Psikomotrizista. Amezketako

IBARRA ▶ KULTURA

Egun osoko festa izan dute babarrun jatean

160 lagun bildu ziren plazan bazkari legea egiteko; antolatzaileak oso gustura daude izandako harrerarekin



Eguerdi aldera erakustaldi polita egin zuten herriko plazan. HITZA



Itxura hau hartu zuen urdaiazpikoak erakustaldiaren ondoren. I. T.



160 lagun inguru bildu ziren babarrun jatean. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun Hauspoa kultur elkarteak antolatuta babarrun jatea egin zuten Ibarako plazan. Jende ugari bildu zen festa berezi honen harira, eta «giro ederra» nagusitu zen egun osoan.


Hitzordu nagusia babarrun jatea bazen ere, aurtengoan eguerdian antolatu zituzten erakustaldiak oso arrakastatsuak izan ziren; Ibarakoa zenbait harakinen laguntzarekin, odolkiak eta txorizoak nola egiten diren ikusteko aukera izan zen; bestetik, urdaiazpikoa nola xerratu behar den ere erakutsi zieten plazara joan zirenei, eta hura dastatu ahal izan zuten. Dastatzeaz gain asko eta asko izan ziren harakinei euren zalantzak luzatu zizkietenak.

Behin erakustaldi bereziarekin amaituta, babarrunak protagonismo nagusia izan zuen bazkariari ekiteko unea iritsi zen. Horretarako, plazan jarritako karpa batean elkartu ziren herritarrak nahiz kanpotik etorritakoak, 160 lagun denora. Eta hauek guztiak alaitzeko trikitilarien doinuak ere izan ziren entzungai.

Bai Hauspoa elkarteak antolatzaileak, sukaldariak, zein bertaratu zirenak oso gustura azaldu ziren; batetik, jende ugari bildu zelako plazara, ia prestaturiko janari guztia jan zelako, eta, azkenik, jendeak «ederki jan eta oso egun polita» igaro zuelako.

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Inkesta. Eskualdeko merkatariak kanpainak egiten dituzte herritarrek erosketak herritik atera gabe egin ditzaten. Non duzu ohitura erosketak egiteko? Hauek dira zuek emandako botoen arabera gure webgunean jaso ditugun emaitzak.



GIZARTEA ▶

Sahararen
aldeko
manifestazioa
hilaren 12an

ERREDAKZIOA

Hilaren 14an Madrilgo Akordioaren sinadura egin zela 30 urte beteko dira. Erakunde solidarioekin batera eta akordio horien urteurrenaren inguruan, urtero Saharako herriak bizi duen egoera bukatu dadin eskatzeko manifestazio bat antolatzen dute Madrilan, eta aurten hilaren 12an, 12:00etan, egingo dute.

Hara joateko autobusak antolatu dituzte. Joateko asmoo dutenek 626 34 50 09 zenbakira deitu behar dute. Halaber, Euskadiko Kutxaren 3035 0060 4506 0006 4286 zenbakian 15 euro ordaindu beharko dituzte, izena eta plaza kopurua jarritz. Eta, ondoren, ordainagiria 943 42 76 95 fax zenbakira bidali beharko dute. Gaur da izena emateko azken eguna.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

HEZKUNTZA ▶

Euskal Curriculumuma liburukotea gaur iritsiko da Leitzaldera

Amazabaleko ikasleek beren ekarpena egingen diote Curriculumari, arratsaldeko ongietorriko ekitaldian, plazan



Tafallan eman zioten hasiera herriz-herriko ekimenari. ARGAZKI PRESS

JAIONE ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 17:00etatik aurrera, Leitzako plazan izanen da Euskal Curriculumuma liburukotea. Euskal Herriak Bere Eskola taldeak eskuartean duen ekimena da, *Euskal Curriculumuma herriz herri* delakoa, urriaren 22an Tafallatik abiatu zena eta abenduaren 3an Durangon bukatuko dena.

Honetakoan, beraz, gurera aillatuko da. Eta hemen ere, gainerakoetan egin duten modura, «gure herritik euskal curriculumak jaso beharko lukeen ezagutza» zein den adieraziko dute; «horren ardura Amazabal Institutuko ikasleek» izanen dute, atzo bertan ikastetxe horretako Guraso Elkarteak jakitera eman zuenez.

Ekarpen horren aurkezpena plazan egingen dute, lehen aiatu moduan, 17:00etatik aurrera, liburukoteari egingen dioten ongietorri ekitaldiaren baitan. Izan ere, jaialditxo bat antolatuko dute horretarako: Iñaki Perurena harri-jasotzaileak erakustaldia egingen du, hasteko; ondoren, etorriko da ikasleen ekarpenaren aurkezpena, Euskal Curriculumumaren nondik norakoen azalpen laburrak jarraituz; eta, bukaera, herriko haur eta gaztetxoek dantzatuko Ingurutxoarekin emanen diote. Euskal Herriko kirolaren historian Perurena esanahi handiko kirolaria izanik eta Ingurutxo Euskal Herriko hainbat herriko dantza izan arren, mantendu den herri bakanetako, bertako dantza

propioa izan arteraino, Leitzan izanik, ekitaldia hasteko eta bukatzeko modu ezin hobea aukeratu dute, «sibolikoki Euskal Herri osoko jakintzak bilduz» doan ekimenen parte hartzeko. Hain zuen ere, «euskal curriculumaren alde laguntza emateko prest dauden ikasle, irakasle, guraso zein herritar orori», gaurko ekitaldira bertaratzeke deia egin diote, horien guztien parte-hartzea «beharrezko» dela adieraziz.

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak «EAEko zein Nafarroako Hezkuntza Administrazioek Euskal Herriko ezagutzak eskola bidez transmititzeko» ez dutela «nahikoa egingen» iritzi zion; are gehiago, Espainiako Hezkuntza ministeritzak ezarritako curriculumak «egokitzera» mugatzen direla, eta «kasu batzuetan Euskal Herriari buruzko ezagutzak itxuraldatu eta ezkatuzera». Gauzak horrela, «hausnarketa kritikoa egin» zuen eta «Euskal Herritik bertatik sortutako curriculumak funtsezkoa» dela erabaki eta zentzu horretan urratsak emateari ekin zion, beste erakunde batzuekin elkarlanean eta «jendarte osoaren inplikazioa sustazuz».

2006rako eginda egotea espero dute, «guztion hausnartekin».

LEITZA ▶ KULTURA

Judith, Birginia, Maddi: kantari gogotsu gozoak

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketan parte hartzen ari dira; 2. kanporaketa 13an da

J. ASTIBIA

Maddi, Birginia eta Judith; Judith eta Birginia, eta Birginia eta Maddi; edo hirurak eta Oihana Saenz, Garikoitz Etxeberria eta Xuxuna Juanes. Sei lagun dira eta herenegun Nafarroako Kantu Txapelketako aurreneko kanporaketan hartu zuten parte, Irurtzunen egindako jaialdian.

«Oso gustura» daude egindakoarekin, «eszenatokira atera eta gozatu egin genuen», aitortu zion HITZARI atzo berean Judith Mariezkurrenak. Jendez lepo zegoen aretoa, eta horretaz «ohartu ere egin gabe», bere ahizpa Birginiarekin batera, gitarra bana eskuan hartu eta bien artean sortutako *Maitemina* kantatu zuten, «maitasunaz hitz egiten duen kantu goxoa», azaldu zuenez. «Aurrena melodia egin genuen, frogatu ahala grabatuz joan eta gustuko ginituen atalak hartuz; eta gero, doinu horri hitzak jarri, gaia

erabaki ondoren», agertu zuen berak. Horrela, sortzetik, jendartean aurkeztu arteraino guztia, hasi eta buka, berriekin egin dute, kantu honekin.

Bigarren kantu bat ere egin zuten leitzarrek. Kasu honetan, Birginia eta Maddi Olanon aritu ziren kantari, gainerako musikak laguntzarekin. Bikoteak txapelketa honetan bereranoak direnak, gainera, *Zure albotik urrun banago* abestu zuten, Su ta Gar-ena.

18 kantu entzun zituzten bertara joandakoek, 15 partaideren eskutik. «Oso jaialdi polita eta osoa» izan zela adierazi zuten, «estilo askotako kantuak entzun ahal izan ziren eta ongi egindakoak, gainera», aitatu zuten, «eta giroa oraindik hobea», nabarmenduz.

Orain, igande honetan jokatuko den bigarren kanporaketaren ondoren 19ko finalera zein igaroko den jakin arte itxuratu beharrean daude.



Ezkerrekoa, Judith Mariezkurrena; Birginia M. eta Maddi Olanon. J. A.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 8a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Tolosako Gerontologikoaren Aldeko Plataformako kideak dendaz dena pasatuko dira gaur arratsaldean *Eta orain zer?* kanpainaren baitan lelo hori duten kartelak banatzen, komertzioetako erakusleihoetan jar ditzaten.
Tolosa. Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren baitan, mendiko materialaren merkatu txikia, elkartean. Astegunetan, 18:00etatik 21:00etara; larunbatean, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; igandean, 16:00etatik 20:00etara.

HITZALDIAK

Tolosa. Magrebeko II. Jardunaldietan, *Mestizajea gaur egungo bikoteetan: matrimonio mistoak.* 19:30ean, Kultur Etxean.
Tolosa. Toma Murok bizitzaren bukaeraz hitzaldiak emango ditu gaur eta bihar Santa Maria parrokia lokaletan, 20:00etan.

JAIK

Amasa. San Martin jaiei hasiera emateko, mondeju afaria. 20:30ean, Uxo Toki elkartean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina. 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, albisteak, oharrak...; 12:30ean, agenda: aste honetarako iragarrita dauden kultur ekitaldiak Tolosaldean; 12:45ean, Tolosako azokaren inguruko berriak, Pablo Alberdi lankidearekin; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.
18:00-19:00. *Adi guri* Anoetako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioaren bigarren emanaldia.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Gure arbasoak* Irulegi Irratiak eskaintzen duen saioa, Arroza Irrati Ekolize zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Mendiaz gozatu, lagun artean

TOLOSALDEA ▶ Andoin-Santa Luzia irteera antolatu du Villabonako Aizkardik, eta Sodupe-La Arboleda Tolosako Alpino Uzturrek; izen-emateak, zabalik



Aizkardi (Villabona). Hauxe bezalako paraje ederretaz gozatzeko aukera izango dute mendizaleek. HITZA



Alpino Uzturre (Tolosa). Gaineran mendia igoko dute, besteak beste, igandeko irteeran. HITZA

ERREDAKZIOA

Mendirako zaletasun handia dago gurean. Tolosaldeko mendi elkarrekin ere, afizio hori sustatu nahian, irteera egitarau oparora antolatzen dute urtero. Eta datorren igandean beste mendi txango politaz gozatzeko aukera eskaini nahi diete mendizaleei. Villabonako Aizkardik, esaterako, Andoin-Santa Luzia travesia egingo du, eta Tolosako Alpino Uzturrek, berriz, Sodupe eta La Arboleda artekoa.

Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoa burutu dute Aizkardikoek, baina igandean honetan ibilbide horretako Iruña-Gasteiz etaparen aldeara bat egingo dute: Andoin-Santa Luzia, Entzia mendizerra zeharkatuz. Andoin herritik (613m.) Andoingo atakara (1.010 metro) igoko dira, Gilituritik pasatuz, Mirutegi gainara (1.156m.) iristeko —Aguraindik ere ikus daiteke tontorrean dagoen burnizko gurutze handia—. Baio gainara (1.156m.) joko dute ondoren, gailurretik gailurrera, Opakua mendatera iritsi arte. Hura zeharkatuz, Arrigorristara igoko dira (1.153m.); ezkerrean Aguraingo haranaren ikuspegi ederraz gozatu ahal izango dute mendizaleek, eta eskuinean Arana bailararena. Larreder (1.102 m.), Santa Elena (1.110m.) eta Zorrikobaso (1.083m.) tontorretatik igarota, Santa Luzia mendatean (832m.) amaituko dute ibilbidea. Guztira, 24 kilometro inguruko txangoa egingo dute Aizkardikoek, zazpi bat ordutan; 07:00etan abiatuko dira, Olaederra kiroldegitik. Joan nahi duenak etzi arte, hilaren 10a, du izena emateko aukera, elkarrekin egoitza edo 943 69 44 58ra deituta.

Alpino Uzturrek, bestalde, Bizkai aldera joko du igandean. Sodupe-La Arboleda sei orduko ibilaldia burutuko dute, eta tartean Gaineran (822m.), Pico de la Cruz (803m.) eta Pico Mayor (746m.) igoko dituzte. Izen-ematea zabalik da, elkarrekin bertan (Gudari 5, behea. 943 65 27 89). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte, eta gainontzekoek 12 euro.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

«Nigan bada zuretzat egina iluna denerako aterbea; zu izango zara bihotzean den suarentzako errebinia...».

Iluna denerako,
Benito Lertxundi.

Muxuak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Uxue Aizpurua De Paz. Zorionak zure 3. urtebetetzean aita, ama, Lexuri eta sendikoen partetik.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!